

Nazioarteko Estrategia Digitalerako Gakoak

Donostia - 2017ko ekainaren 28a - Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute "**Nazioarteko Estrategia Digitalerako Gakoak**" izenburupean. Jardunaldia gaur, asteazkena, burutu da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan eta 150 pertsona baino gehiago izan dira bertan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamabostgarren edizioan barneratzen da eta enpresei zuzendua egon da, honako helburuarekin: enpresen naioartekotzeari bideratutako estrategia digital egoki bat aurrera eramateko ikerketa, planifikazio eta diseinu gakoak ezagutu araztea enpresei.

Jardunaldian, **Dori Lópezek**, Innova Aholkularitzako Kudeatzaileak, **Jorge Campanillak**, lurismatica Abokatuakeko Sozioak, **Fernando Apariciok**, Amvos Digitaleko Zuzendariak, **Marta Bellosok**, Nazioarteko DHLko e-commerce produktuko Nagusiak, **Eduardo Kaibidek**, Ennatioko CDOak eta sortzaileak eta **Adolfo Fernándezek**, Googleeko Spain & Portugal Business Development Managerak parte hartu dute eta atsedetik gabeko eraldaketa digital batean bizitzen ari garela gogora arazi dute, eta une honetan plataforma digitalak erabiliz negozioen hedakuntza beste merkatu eta herrialdeetara bideratu daitekeela azpimarratu dute.

Hizlariak aro digitalak enpresei ekarriko dizkien erronka berriak izan dituzte hizpide. Gaur egun banatzaileak eta agente komertzialak bertan izan gabe herrialde batean saltzea posible dela nabarmendu dute, bertan biltegiak izan gabe eta presentzia fisikoaren beharrik gabe, baina argi utzi nahi izan dute hau guztia Web gune bat 4 hizkuntzatan izatea baino askoz gehiago dela. Enpresek erronka berriei egin behar diete aurre euren nazioartekotzeko prozesuetan, hala nola, nazioarteko gune digitala ezagutuz, B2Bak (business to business) eta B2Cak (business to consumer) nola funtzionatzen duten ezagutuz, modelu logistikoak ezagutuz, marketplaces ezberdinak ezagutuz, informazio iturriak, Big Datak eta lege arloko kontuak ezagutuz.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero hiru jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, Gauzen Interneta, Big Data, 0.4 Industria...

Laguntzaileak



Antolatzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347